

BEZEROEKIN HARREMANAK:

Bezeroekiko harremanari garrantzi handia ematen diogu gure enpresan, harreman egokia edo ona izatea funtsezkoa deritzogulako. pertsonala eta automatizatua izango da enpresak izango duen harremana, eta, beraz, hainbat modutan exekutatu da:

Lehenik eta behin, zerbitzu pertsonala eta aurrez aurrekoa eskaintzen dugu, guretzat ekonomikoki eskuragarria den lokal bat alokatuko baitugu. Gure bezeroei arreta askoz zuzenagoa eta pertsonalagoa emango diegu, eta haien galderei eta zalantzei erantzun diegu.

Bigarrenik, zerbitzu automatizatua eskainiko dugu gure web orria sortzean, bezeroek produktua erreserbatu ahal izan dezaten lokalera fisikoki joan beharrik gabe. Bertan, honako hauek agertzen dira: zer den Human security, gure enpresaren oinarritzko informazioa, gure asmoa: kaletik bakarrik joateko beldurrik ez duen mundu bat sortzea, segurtasun-hamamentuan ezagunenak diren influencer-ei elkarriketak, jendearen iritziak eta galdera ohikoenak biltzen dituen blog bat eta non aurkitu gure lokala erakuzten duen mapa bat.

Gainera, sare sozialen kontuak egin ditugu (Facebook eta Instagram), gaur egun gehien erabiltzen direnak baitira. Uste dugu horrela azkar ezagutaraziko dugula elkar.

Hirugarrenik, ekintza hauek egin ditugu bezeroa gurekin lotuta egon dadin:

- Lehenengo urtean alta emanez gero, hurrengo hiru hilabeteetan % 15eko beherapena egingo zaie.
- E-mailak bidaliko ditugu nobedadeen berri emateko, gure sare sozialetan argitaratzeaz gain.

